

**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
45n. ZENBAKIA
UZTAILLA
DAGONILLA
— 1981 —**



GUEIIES'en

LORENTZO DEUNAREN

BASE LE IZA

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia

SARIKETA

ZER aldizkari onen zenbaki au, zati on bat beintzat, ipuin sarituak agertzeko erabilli dogu. Jokabide au irakurleentzat atsegingarri izango da, zalantza barik.

Emen agertzen dira ba, saritutako lau ipuiñak eta idazleai buruz zerbait. Laurak irakurriaz erreza izango da ZER'en sendi onetako guztientzat maikoen erabagia epaitzea. Errez izan daitekez eritxi ezbaridiñak arlo onetan.

* * *

ELBURUA

Sariketa au ezarri dogunean EUSKERAZALEAK TALDEA'n elburu bi izan doguz, batez be: Idazle barriak sortzea ta irakurleak ugaritzea, orrelan euskera idatzia indartzeko.

Sarituaren artean geienak idazle ezagunak dira eta aide orretatik bigarren elburua geiago lortu da, baiña ba-daukagu idazle gazte barri bat be. Ez da au beronek lortzen dauan lenengo saria, baiña bai lenengoetari-koa. Ondo etorria izan daitela euskal-idazleen mundu onetara!

* * *

BIDEA

Elburu ori lortzeko artu dogun bidea ipuiñak izan dira: Bide erreza irakurleentzat, baiña ez ain erreza idazleentzat. Ipuiñk idaztea ta gaurkotuta idaztea ez da erreza.

Irakurtea, ostera, errezagoa da. Ipuiña ondo idatzia ba'da, nekatu barik irakurten da, astitsu ba'gagoz beintzat. Zori txarrez, asti gitxi daukagu gaur.

Eta euskerea bera ikasteko be egokiak dira ipuiñak, lenengo irakurri ondoren, taldean ipuiñari buruz itaun erantzunak egiñaz alkar-izketea sortzen ba'da.

* * *

BIDE BARRIAK

Ipuiñen bide au gaurkotu ta barriztu egin bear dala esan dogu eta orrelan da.

Antxiñatiko ipuiñak, izaditik artu ta irakatsia daukenak (Barri Oneko alegiak esaterako) edo abereengandik irakatsi ori ateraten dabenak (Indiatik mundu guztita zabaldutako «fabula»'k) gaur beste era batera idazten dira. Orretan Zarate izan genduan maisu.

Euskalerrian eta erri-maillan sortutako ipuiñak (lamiñenak, sorgiñenak eta beste mota askotakoak) beti bardin esaten ezin geinke jarraitu. Barrizatze bat bear da.

Sariketa onetara etorri diran ipuiñetan barriztapen ori nabaria ta agirikoa da. Gure ipuinariak bide barrietatik doaz.

* * *

ZORIONA!

Zoriona ba, gure idazle sarituai! Eta saritu barik geratu diranai be bai. Ez da gauza erreza izan auke egitea eta zeaztasunez jokatu-ondoren be, laugarren saria jarri bear izan dogu.

Ez itzi zuen idazkortza ugarrak jaten. Jarraitu eta bialdu ZER aldizkari onetara be zuen lanak. Guk ordaiñik ez dautzuego emongo, baiña erriaren esker ona izango dozue ordaiñik onena.

Eta irakurleoi, orra or zuen gogo janaria, euskaldunentzat egokia eta adimententzat porgarria.

EUSKERA

0

Ondarru'ko Udalak (Ayuntamentuak), euskeraz idazterakoan, Bizkai'ko Euskera erabiltzea erabaki du, eta ez «el batua». Zorionak Ondarruko Udalari.

Legezko gauza, eta zuzen pentsatua, ondarrutarak egin dutena. Bizkai'n ez bait da Bizkaiera beste Euskerarik, Gipuzkoa'n Gipuzkera beste Euskerarik ez dan bezala. Ez an, ez emen, ez da sekulan beste Euskerarik izan. Eta ez da sekulan izango ere. Ori bakarrik da gure Euskera; betiko Euskera. Gipuzkoa'n Gipuzkera eta emen, Bizkai'n, Bizkaiera.

Ondarru'ko Udalak egin duana egin bear dute gure beste Udal guztiak ere, eta beste inork baiño leenago Bizkai'ko Aldundiak (Diputazioak), beste Erakunde (Instituzio) guztiei ikaspide emanaz.

* * *

Politikeri zipotzaren griñatik sortutako izkeraz itzillu guztiak baztertuta, Bizkai'ko Euskera babes-tea, zaintzea, indartzea, eta ortarako Euskera ori eta ori bakarrik lantzea da Bizkai'ko Aldundiaren eginkizuna: Bizkai'ko aberastasunak gordetzea. Aberastasun oietan aundiena ordea, Euskera degul Baña Bizkai'ko Euskera, Bizkaiera bakar-bakarrik. Beste izkerak ez dira gureak. Izkerak oiek utzita, gorde eta bizkortu dezagun biskaitarrok, gure indar guztiakin, gure izkerak bakarra dan Bizkaiera.

* * *

Bizkaiera, beste Euskalkiekin batera, Europa'ko eta agian mundu guziko izkuntzarik zarrena da. Atzo goizean, gorrotozko giro makurrean asmatutako izketa mordoltoa gaitzetsita, gorde dezagun guk bizirik gure Bizkaiera.

Arana Goiri'tar Sabin'en aurka ekiteagaitik asmatu zuten «el batua», «eusko rebolezio marxistaren sinbolo plastikoa».

Orretxegaitik, oraingoan ere Ondarru'ko Udalak artu duan erabakiaren aurka irten dira Udal artako LKI'tar bi zinegotziak (kontzejalak) eta HB'tar iruak.

* * *

Baña Ondarru'ko Udala'ren erabaki orrek ba-du beste merezimentu aundi bat ere, oso-osoan Euskeraren batasunerako bide zuzenean bait dago.

Bai al dakizute zer dan Euskeraren egiazko Batasuna? Oso gauza errexera; munduko gauzarik errexena; auxe besterik ez bait da Euskeraren egiazko Batasuna: Bizkaitarrak Bizkaiera ondo ezagutzea eta Gipuzkera errez ulertzea. Ta, era berean, Gipu-

ETA EUSKERA

tzek Gipuzkera ondo ezagutzea eta Bizkaiera errez ulertzea. Ori lortu ezker, egiña dago besterik gabe Euskeraren Batasuna.

* * *

Ortik aurrekoa, astiro-astiro, erriak berak egingo du. Bizkai'ko eta Gipuzkoa'ko euskaldunak egingo dute alkarrekin mintzatuaz, idatziaz, irakurriaz; uste gabean egingo dute eguneroko arremantetan alkar errez ulertuaz. Berez etorriko zaio Euskerari «ortik aurreko» ari.

Ez dauzkat azturik Laburdi'ko Euskera eta ia-ia itorik dagoan Zubero'koa; nere Euskalkia ainbat maite ditut biak; baña naita, «apropos» aipatu ditut Bizkaiera eta Gipuzkera bakarrik, Euskeraren batasuna bi Euskalki oiekin egin bear bat da, eta egingo bait da, eta ez Benaparroa'ko Euskera oñarriztat artuta.

* * *

Zergaitik? Bizkaiera eta Gipuzkera diralako ia euskaldun danak, eundik larogeita amairuk (93 %), itzegiten duten Euskera. Benaparrera, berriz eundik lauek (4 %) eta, agian, eundik iruk besterik ez dute itzegiten.

Erokeria, eta erokeri aindia egin zuten «el batua»ren gurasoak Euskera bateratzearen ia inork itzegiten ez duan Benaparroa'ko Euskera ori oñarriztat artu zutenean. Zoraturik ote zeuden? Ez. Sabin'en aurka joateagaitik egin zuten guzia.

* * *

Sabin, Euskera osoaren maitalea zan. Baiña bera bizkaitarra zalarik, Bizkaiera, bere Euskera, landu zuan bereiziki. Sabin'en izena baztertzeagaitik, baztertu zuten zearo Euskera Batutik aren Euskera: Bizkaiera. Sabin'en izena nai zuten zanpatu, San Martin'dar Yon Euskaltzaindi'ko Idazkariak esan zuan lez «gizon madarikatu aren izena»!

Zentzuzko gauza, ordea, Euskeraren Batasuna Bizkaierarekin eta Gipuzkerarekin egitea da. Orretxegaitik, Ondarruko zinegotzi LKI'tar eta HB'tar aiek ere, Euskerari dioten maitasuna Sabin'eri dioten gorrotoa baiño aundiagoa ba'da beintzat, Ondarru'ko Udalaren erabakia ontzat artzera beartuak aurkituko dira.

Zorionak Ondarruko udalari.

LAITEGI'tar Bixente.

EUZKO MEDIAK GURE AMETSA

Lenago gure lurralde ontan ezagutzen ziran kirol guzti edo, geienetatik asko edo gitxiago zertua ba-naz bere, manditar kirola, mendigoizaletasuna izan da gure atsegingarriena, mendiak eta batez bere euzko mendiak izan diralako gure benetako ametsa.

Zergaitik?, geien bat biotzez maite izanik geure lurraldea, Euzkadi, berau ezagutzen biderik egokiena izan dalako.

Eta urren, geure soin kirotsua kirol garbi orren bitartez soinketu ta geure azkatasun egarria axkenengo berrogeitak urteotan pizkat asetutzen lagundu gaituzalako.

Mendian gengoan aldi guztian, gizon azkeak iduritutzen gintzazan, geure Aberri-taz oldoztu ta zer egin erabagiteko, Jainkoak geure begien aurrean ipiñi dauskuzen pitxi ederrak gozatutzen genduzan bitartean.

* * *

Orixegaitik-edo, mendira igoten asiaz batera gure bururatutzen zan «Azkatasun eguzkia, basotik urten da» abesti goxoa ta, bera abotan dogula elduten gintzazan mendi-gaillurren batera, ondoren eta alderdi guztietara begituaz Sabina gure Irakaslearen abesti goxua abestuteko benetako atsegiñez:

«Benetan da polita, / geure Aberria; / biotzez maite daigun, / Berak maite gauzan. / Guztirik gaixoena da-ta, / gure Aberria».

* * *

Orain ogei ta bi urte baiña, gurdibil (kamioi) zatar batek jo ta trizkau euskun iztarra te benea, betirako errenduta itzirik.

Ori ta guzti bere ainbat menditan egonak gera azkenengo urte ontan, Bizkai'ko mendi guztiak igon, beren inguruetakoa basatxonu ta zer ikusi daben basterrak arakatuaz.

Gipuzkoa ta Araba'ko mendirik "geienak eta Naparra'n diran goi-mendi ta garrantzitsuenak ikusiterate.

Orain zazpi edo zortzi illabete, baiña, gure iztar zauritua ondo ezagutzen daben osagille ulertuak galerazo egin euskun mendira igotea ta, orixe bai gure atzekabea!, iztar errendu onek bear ez dan inguruan ikuturik min garratzak emonten daustazalako.

* * *

Orrilla'n azken aldeko egun argi eder baten baiña, ezin nintzan mendiratu barik egon-eta, bide zati bat berebillan da beste zati bat oñez, Ganguren'go gallurrera eldu nintzan. Mendigoizalea'ri bere mendian jaio ta mendian azia dan auntzari jazoten jakona jazoten jaku; nai-ta etxe-inguruan ezi-ta egon, beren burua azke ikusiten dabenaz batera mendiruntza alde egin.

Ganguren mendiditxua, edozeñek dakian lez, Bizkaya'n erdi-inguruan auzkitzen da, Ipar-aldeetik Sondika gaiñeko Lañomendi ta Derio ta Mungia bitartean dan Berriaga dituzala. Sorkalde'tik Bizkargi ta Ganzabal, Ego-aldeetik Apario, Mandoia, Upo eta Artanda eta, Sarkalde'tik Uzhorta, Pagasari ta Santurtzi gaiñeko Serantes'ek ingurututa.

Eta pizkat urrunago eta alderdi artarantza, Jara-mendi, Illuntzar,

Oiz-mendi(Bizkaya'ren benetako etxigie edo balkoia), Intxorta, Aramotz-atxak, urrunago Udaitz erpiña ta Anboto. Bizkai'ko mendiaren buru dan Gorbeia.

Gure eskumarantzago begiratu-ta Orduña aldeko Goibel, gaur-egun Sierra Salvada izenez geiago ezagutzen dan mendi lerroa.

Bitartean Untzuetan —piku eta Sarkarderantzago Ganekogorta, Eretza ta Enkarta— erri'ko Gaineran eta Karrantza inguruetakoa Armiñon, Jorrios eta abar ia lanbur artetik ikusiten dirala: Auda, Bizkai'ko mendi guztiak, danen izenak aipatuzten ez ba'doguz luzegi ez egitearren.

Mendi-gallur ortan egon nintzan ordu ta erdi edo geiago, mendi orrei begira, neure ikusmena asetu ezin-da eta, iñon diran oldozmenak egiten nituzan bitartean, bada, mendirik geien orrek dabe gure oroigarri-renbat.

Orduantxe etorri jatan gogotara sarritan da gogotsu abestu dodan Iparragirre'ren abesti ederra, neure erara zuzenduta da abots-erdian baiño besterik abestuteko, atsekabez ikusiten nebazalako geiago bertaratu ezingo nizan mendi maite orreik:

«Ara nun diran, mendi maitiak! / Ara nun diran zelaiak! / basarri eder zuriak, / Iturri eta ibaiak. Ganguren nago, zoraturikan, / zabal-zabalik begiak. / Ara Euzkadi lurra lakoarik, / ez dago Ludi guztian».

Euzkotarra! ezagutu zeure Aberria azalez ta barruz, orretara maitatuko dozu obeto-eta.

ALTUNA'tar Josu.

UN TZU ETA'KO GAZTELUA

Unzueta'ko mendi-tontorretik ikuspegi zoragarri begiztatu oi doguz Orozko, Zeberio ta Laudio'ko aran ta lautada politik.

Goi-alde onetan aspaldi baten gaztelu menderakaitz, garaitu-ezin bat egoan. Egun, inguruetan sakabanaturik bere ondakiñak soil-soillik dakusguz.

Bizkaia'k eta Orozko'k aldi aretan jaurerri bikoitzak ziran eta, gudarako batez be, gudagizonak batu ta alkartzeko asmoa artu oi eben.

Gaztelu ori zala zenik garrantzitsuenetariko bat, Bizkai'ko jaurerria jagon eta zaintzeko, esan geinke.

Gaztel-ErrikoI Pedro erregea, ezizenez Ankerra, urreratu zan bein Euskal lurraldeetara, Bizkai osoa bere agindupean jar-teko asmo zitalaz.

Gaztela'tar erregearen erasoaldi ta oldargunerik gogorre-nak, Unzueta'ko Gaztelu-pean izan ziran.

ARERIOAK

Garai aretan II Maria Lopez de Haro zan Bizkai'ko Andrea eta Juan Nuñez de Lara gaztelar leiñargi bategaz ezkonduta egoan.

Bizkaia'n, *beragaz* zer-ikusirik ez eban arazo gordin, *garraz* bat urten jakon.

Gure gaztelarraren senditartekoak, Nuñez de Lara abizen argizkoak atan be, bein baiño geiagotan augaitik naiz orregaitik, gaztelar erregeagaz eukezan euren arteko katramilla ta goraberak konpontzeko, erregearen aurka jokatu oi eben eta gorroto oneik bide zirala euren artean gudaketa txiki batzuk be egiten ebezan.

Urteak aurrera arazoa luzatzen joian eta ez jakon inundik be amai-erarik ikusten.

1352'garrean Juana Nuñez de Lara zan Bizkai'ko Andrea eta Don Tello'gaz ezkondu zan. Don Tello au Ankerra deritxon Gaztela'ko I Pedro'ren sasi-anaia ta politik-arerio itzala zan.

* * *

BURRUKEA

Olan ba, I Pedro'k jarraitu eban On Tello Bizkaia'raiño eta mugan gelditu-bearrean bere guda-mutillakaz ia Bizkaia'ren biotz erdiraiño barruratu zan.

Orduan euskaldunak menditarteko argiak iziotu, turutak jo, arpegia emon eta oldartu egin eutsoen Pedro Ankerrari ta bere gudalari-talde.

A bai izkillu-otsa! Batetik eta bestetik erasoaldi txito gogor samiñak jazo ziran eta ez Unzueta mendiko be-aldean bakarrik, baita Bizkai'ko beste ainbat tokirik egokienetan be.

ONDORENAK

Burrukarik aundienak eta alkar-joterik gogorrenak eta garrantzitsuenak Unzueta'ko mendipean izan ziran ziurkiro, esan dogunez, baiña mendi ospetsu onen egaletik asita, goraiño aldatzeko gogorrenetarikoa ba'zan, atzerritarrak arnas-estuka aldatz-erdian bein eta geiagotan itoten ziran.

Adoregetu ziran etsaiak eta azkenez Pedro Ankerra guztiz gogaiturik eta bere gudarostea odolusturik eta erdi birrindurik egoala, buru-makur ta atzerakadaka gogoangaria egiñaz, gure lurrak laga zituan gure arbasoen pozarren.

Ordu artan sorturiko gentza luzarokoa ez ba'zan be, bake zorionsua etorri jaken Bizkai'ko biztanle ausarta ta jasankorrai.

ARREGI'tar Josu'k

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

EUSKERAZ

UDAKO IKASTAROA
BIZKAIERAZ

IRU MAILLA

GARAGARRILLAN (UZTAILLAN)

EGUNAK: ASTELEN, ASTEARTE, EGUASTEN ETA EGUENETAN

ORDUA: ARRATSALDEKO 5-etatik 7-ak arte
EDO 7- etalik 9-ak arte

ORDAÑA : 2.000 peseta,

IZENA EMOTOKO TOKIA: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14 • 2
BILBO.
ARNATSALDENO 0-01a11k 9-1k arte
URRUTITZKIÑA 423.53.22

CURSILLO OE VERA. NASTA MICRO NIVEL DE MINE. VIICAINO
FECHAI JULIO DIAS: LIMES, MANTES, MIERCOLSS ✓ JUEVES
NORA: 05 5 • 7 6 5E 7 • 9 5S LA T RS. MATRICUL A: 2.000 RYAN.
INSCRIPCIONES EUSKERAZALEAK
COLON D RREAT0001, 14-2 BILBAO,
DE O - DE LA YARNS
TELEFONO 923.53.22

GUK EUSKERAZ EGITEN DOGU ETA ZUK?

EBANJELIOAREN

BIKAINTRASUNA

Goiria

Ainbat idazti eder eta mamitsu dira munduan, ebanjelioa ederrena ta mamitsuena.

Jainkoa Bera da ebanjelioaren egillea Berak argi eginda idatzia baita.

Jainkozko jakintza-egiak eta betiko bizitz-aginduak ditu ebanjelioak. Orregaitik idazti guztien ganetik aurkitzen da. Garrantzitsuena ta bearrezkoena da.

* * *

Gizonak idazti aipatuak idatzti ditu, alan be ebanjelioagaz bardin du daitekenik ez.

Erlijiñodunak ezeze erlejoñobakoak be autortu dabe au.

«Ebanjelioaren santutasunak itz-dagio nire biotzari - iñoan Rousseau sinisgeak - Jakitunen idazkiak ikusi egizuez - darrai - Txikiak deritzataz bere ondoan».

Eta Lamartin'ek: «Gizaldiak orrialderik-orrialde iruntziten dabe ebanjelioa. Itz bat bakarrik irakurrita be milla irakurriko dozuez».

Eta Victor Hugo'k: «Idazti au ez dauken erriak billa dabilta eta ogei gizaldik ikasi dabe bere kerizpean».

Eta Napoleonek: «Idaztirik bikaiñena da. Ebanjelioa gure adimenaren jabe egin danean gure biotza irabazi dau. Ezerk baiño obeto azaltzen dauz ebanjelioak munduaren auzi-problemak».

Eta Augusto Nikolas'ek: «Go goan daukat: 18 urte nebazanean egunero irakurten neban ebanjelioa. Udabarriko egunsentiak lez

poztuten eban irakurgai onek nire biotza. Zerutiko doiñu gozoa sortzen eban nigan eta goimaitasunez betetzen ninduan. Lurriña igoten zan bere orrialdeetatik».

Eta Gibierrek: «Enajelioan dana da eder eta zoragarria. Danak lilluratzen dauazan jakintza dauko. Idazti orren orri usaintsuak umearoak, gaztaroak eta zartzaroak era billi bear leukiez. Idazti orrek bizi-bizian zaintzen dau gizonen artean Jaungoikoaren itza. Irakurri egizue ta errialde guztietan gañezkatu, irudi guztietan agertu, epai guztietan ausnartu ta deadar gurtietan entzuten dan Jainkoaren ontasuna ikusiko

dozue. Argia, maitasuna da guztia idazti ontan asieratik azkenerarte».

Idazti txarrak edena jaurtitzen dabe gaur gizartean. Batez be gaztedia usteldu dagie. Gaztediaren adimena ta biotza idazti onein morroi ta menpeko dira. Ainbat kalte egin dabe ta egiten diardue idaztiok gure errian be. Euzkadiko gaztedia idaztion menpeko da.

Sartu bedi ebanjelioa barriro be gure errian. Sartu bedi gure sendietan. Urrezko idazti onek jakitunen osakiak baiño obeto osatuko ta sendatuko dauz gure erriaren zauriak.

KARMENGO AMARI

(Arnarrekoa)

Goiria

*Zuregana gaur nator Maria,
Karmengo lore aratzjoria,
zure oñetan nekerik-neke
naukazu apal maitasun-eske;
Sutu egizu, Ama altsua,
nire barnean maitasun-sua,
zure biotzan toki bat egin
lokatz-artean galdu ez nedin;
Zu maite izan, Zurekin Bizi,
zure laguntzaz zerua iritxi.*

Bilbo - 1931

OMEN ETA EREDU

Bere egin bearra bete edo bere elburu ona beteten guztiz ale-
gintzen dan gizona, benetan omengarri da.

Abadearen egin bear ta elburu gorengoa gogoen artzaintza
kristoren antzera betetea da, ori lortzeko era ugari ta eginko-
rrak billatu ta erabilliaz.

Emeretzigarren gizaldiaren bigarren erdian, bide orreik zu-
zendu ta erabilten gorengo zan abade bat bizi izan zan Bilbon:
On Jose Ibarguengoitia zan abade ori.

Beratzaz idazti zeatz bat egiteko ustean dabillega norbait
entzuna dot. Arren ainbat lasterren egin daitela idazti oti.

* * *

Baiña bitartean, labur baiño ez ba'da be, abade orretzaz
zerbait idaztea ondo deritxat.

Abade goragarri au lenen-lenen urte askotan San Anton Pa-
rrokiko abade laguntzaille izan zan.

Gero bertako erretore luzaroen eta, azkenez, Santiago Pa-
rrokiko erretore zala il zan.

Eliz-gizon Jainko-zale benetan, lan ta lan beti bere egin be-
arra betetan, eta artzaintzan bere elburu goragarria jaritzeko,
emen San Antonen egoala, beste erakunde batzuen artean
oneitxek antolatatu ta eratu zituan.

* * *

—Umeai eziketa ona emoteko berak ekarri zituan Bilbora
Kurutzearen Alabak deritxoen lekameak. Oneik izan ziran le-
kameetatik lenengo ikastetxea Bilbon zabaldu ebenak.

* * *

—Bera izan zan *Jesus'en* mirabeak (Siervas de *Jesus*) dei-
tuak diran lekameak atonduten lagundu ebana. Deitu leikio be-
rari gaixoakaz ainbeste lan eder egiten daben lekameen lankide
edo kofundadora.

* * *

—Bera lenengo Orrillean Maria'ren illea ospatuten asi zana.

Lora orreik goizeko lauretan egiten zirean egunero, eliza ga-
nezka egola. Aro aretan langilleak ez eben zortzi ordu bakarrik
lan egiterik.

Eguzkitik eguzkira lan egiten zan, orregaitik lora-elizkizuna
goizeko lauretan egiten zan, langilleak orduz lanera eldu zeite-
zen.

—Andra ezkondu naiz alargunak, etxeko andra benetako
kristau biurtu zeitezen, Monika donearen alkarte sortu eban.

Orduan ez egoan ondiño Katoliko ekintza (Accion Catoli-
ca) ta olakorik. Bera izan zan gauza orrean aurrelari, Monika
donearen alkarte orregaz.

Alkarte orrek bere batzarrakaz eta elizkisuakaz sendietan
kristau usain ederra indartu eban.

* * *

—Larregi ez luzatutearen, berak parrokan indartu eban
erukizko Jesus kurutzetaren onspena.

Umetxoak lenengo Jaunartzea alkarregaz egiteko oitura
Bilbon lenengoz sortu eban. Arriskuan egozan neska gazteak
zaindu ta bide zuzenera eramateko, Errefugio'ko Lekameak eka-
rri zituan Bilbora, etabar.

* * *

Santiagoko erretore zala, gogoiñarkunai buruz idazti eder
bat be argitaldu eban eta beste abade batzukaz alkarturik, erri-
rik erri mixioak emoten asi zan.

Ordurarte ez egoan emen olako oiturarik, ordurarte lekai-
deak bakarrik emoten zituen mixioak.

* * *

Iñoiz bere bizitza osoa argitalduten ba'da ikusiko da zela-
koa zan gizon onen sua ta garra artaldea elburu onera erote-
ko.

Esan dogunagaz argi dago gogoangarri dala abade au aba-
deentzat eta kristau danentzat.

Urtetsu zala, esaten dan lez, santutasunaren usaiñean it san
Bilbon igalitsu ta eliztar guztien biotzetan sarturik. Abade au
egiz da Bizkaiko ta mundu guztiko abadeen omen ta eredu. Zu-
zen da bere oroimenak gure artean irautea bide eder orri jarrai-
tu dagiogun guztiok!!

GALLASTEGI'tar Kauldi

BIDEGARROAREN MEZUA

*Txorrotxioka bidagarro
tantai gain gaiñan pinpin dago,
zeññi abesten ete dago?
zure abesti bestelako?*

*Goizan goiztik egunero
kanta kantari ortxen dago,
beste txorien ederrago
abestu ten dau bero-bero.*

*Konturatzen naz norentzako
zure abesti eder gero,
abian dagon amagana
zure abesti eltzerako.*

*Biderrago dan ama ona
arrautza epeltzen egun dana,
urten dagien txorikumak
zeure antzera kantariak.*

*Zure abestin oiartzuna,
mendi arrotan da entzuna,
udabarriren eltze ona,
adierazten zoriona.*

*Or datorrela egun ona,
diñoskuzu zuk ortik ona;
nire txorien maiteena,
zara niretzat zoriona.*

*Olako lirain bizi-bizi
Jaunak egiña bai pozgarri,
begira nago emen zuri
eldu danetik goize argi.*

*Jaungoikoaren albideak
adierazten abestiak,
Jaunarentzako zuk txaloak
zoliak ta garbi barbiak.*

*Mendi ingurun bizi diran
gizaki danak bai zorian,
bizi dira ba pozez zoro
Jaungoikoaren magalpean.*

*Zelai, mendi ta txoritxoak,
danak batera alkartuak,
euren ederran gizaik
daki dira Jaunarenak.*

*Gauza politik Jaunak egiñak
ikasi daien gizaik
danak dirala Berarean
Berari guztiz txit lotuak.*

*Auxe ber-berau bidagarrok
abestiakaz niri diraut,
abeslari dan ederrenak
nire biotza goratzen daust.*

Kauldik

GIZA-ARLOAK

IV

*Etxebarria, zer duk
ire mendi goietan?
Zer daukak zelaian...?
Euskaldun arimea
pozez, gañezka, al jabilk
ire baserrian...?*

*Ibai, zugatz, arriak,
alai, ortzirantz adi
egunez urretan;
lurraren izatetik
ederreen erioa
goizean intzetan.*

*Lurraren ederretik
biotz garbia dator
sendiko bizira;
lagun edertasuna
lurraren garrak dakar
euzkoen argira.*

*Mendi, zelai, abere,
gizonak lan ta jolas
izketan dabilteaz;
pozez ta nekepean
elkar indartzen dira
biotzez ta itzaz.*

*Ardien arran-otsa,
mendian belardian,
entzuten goxoro;
maitasuna jario
nire asabeen lurrak
larretik oparo.*

*Izkuntz zoragarria,
lur bera letz sakona,
aize antz bizkorra;
sorpenik ederrena
egin zendun kabia;
izkuntz gizakorra.*

V

*Gaztaroa eldu zen,
ametsaren giarra,
bizi, odoletan;
Gazteiz ta Etxebarri,
jakiturizko lurrak
argi izpietan.*

*Nere gogo, zer nai duk?
Aurrean duk Euzkadi,
ire lur guztia.
Euzko erri gorena,
arazo aundietan,
ama ta semia.*

*Otsoz inguratuta
ikusten joat ama
katai ugerretan;
indarra duk lege
leoi zapaltzailleentzat
gogorkarrietan.*

*Ostuka, lapurretan;
jabiltzezak mutillak
euskeraz mintzatzen;
baiña zer eiten dugu
izkuntzarik onena
miñean erabiltzen...!*

*Gorrototan jausi nintzan.
Gero agertuko zen
gudaren erdian;
Gotzaiñak esan zidan;
salakuntz txarrak ditut
politik bidean.*

*Gogoaren indarra
egi bizitan neukan
sorterri izkuntzan;
ezin saldu neikean
amaren odol itza
etsaien bizertzan.*

PAULIN

MIRENTXURENTZAKO MOKOTSA

(Zaindu eizuez ekandu onak)

Ez dakit oindiño bizirik diraun ala galduta dagon gu ume giñala Euskal Erriko toki askotan ezagutu genduan oituratxo bat. Pazko-Egunez amabesoetakoei MOKOTSA eritxon opil edo ogi bakan, berezi bat senide —maitasun— agergerri lez emotea. Orain 60 edo 70 urte ondo zabaldua egoan ekandu polit ori.

Orduntzekoa da ipuin au. Oiz mendiaren maldetan ondiño zutunik dagon Mendiola izeneko basetxe arpegi zabalean Mirentxu eritxon neskatoa zan seme-alabetan txikiena. Aurreko urteetan lez bere izeko eta amabesoetako zan Antoni'k Pazko egunez Mokotsa bialduko eutsola esan eutsan illebeta lenagotik, eta iñoiz baño aundi, eder eta gozoagoa egiteko aginduta eukan ogitegi edo panaderijan. Baiña oingoan Antoni bera ezingo zala igon Mendiolarano ta auzoko edo ezagunen bategaz bialduko ebal esan eutson neskatxoaren ama ta bere aizta zan Mafiaziri Antonik Erramu-domeka meza ostean alkar ikusi ebenean.

Eldu zan, ba, Pazko-Eguna ta erriko ogitegi edo panaderijan mokotsak pilloka egozan, batzuk aurretik aginduta (Mendiola'ko Mirentxu'rentzako bat) beste batzuk iñok agindubakoak, baiña salgai. An agertu ziran baserri-tik goizeko mezara ziranak euren etxietarako ogi billa ta bide batez besoetako umetxoentzat Mokotsa be erosteko asmoz. Mokotsak etziran danak bardiñak; batzuk txiki samarrak ziran, beste batzuk aunditxoagoak. Baiña Antonik bere loba ta besoetako alabatxoarentzat aginduta eukona zan beste guztiak baño biribil, aundi eta ederragoa.

Mendiola basetxetik ur-urran dagon Bizko etxeo Joxepa izan zan Antonik mezatik urtenda bertan aurrez-aurre aurkitu eban ezaguna eta berari eskatu eutsan Mendiolarano ango Mirentxu bere loba ta besoetakoari Mokotsa eroateko mesedea.

—«Bai, Antoni, pozik egingo dautsut mesede ori, zeu bertarano igon eziñik zagozan ezker». Bide batez neuk

be Bengolan daukadan besoetako mutiltxoari bere mokotsa eroango dautsat».

Sartu ziran ba andra bijak ogitegira ta Joxepa mokots txiki samar bat bere besoetakoarentzat erosten ebillen bitartean, artu eban Antonik Mirentxurentzako antziñatik aginduta eukana, len esan dodan lez, an agiri ziran mokotsik aundi, biribil eta ederrena, zamau baten bildu eta Bizko Joxeparen eskuetan ipiñi eban:

«Emen daukazu, ba, Joxepa, nire besoetako Mirentxurentzako mokotsa; emoiozu berari edo, obeto, bere amari, arren, neu gaur bertarano ezin nazala joan esanaz».

Bizko Joxepa bere ogi ta bestelako gauzakaz eldu zanean eta eskaratzeko mai ganean mokots bijak ikustean eta berak bere besoetako mutillarentzat eroserikoa Mirentxurentzako baiño txikiagoa ta zatarragoa zala konturatzean oldozkun edo pentsamentu oker bat bururatu jakon; aldatzea, truke egitea; Mendiolako neskatoarentzat ekarrena Bengolan mokotsaren zain egongo zan bere besoetako Juantxuri bialdu eta mutiko orrentzat erosi ebana Mirentxu'ri eroan. Pentsau ta egin, bere seme Joesetxori deituaz esan eutson:

«Eroaiok, Joesetxu, mesedes Mendiolako Mañaziri, ta neure partez emoiok, bere aizta Antonik emon daustala esanaz».

Joan zan, Joesetxu bere amak emondako zorrotxua-gaz Mendiolara, eta bertako atadian aurkitu eban Mirentxuren aitari emon eutsan esanaz:

«Ara emen nire amak erritik ekarri daben lotura edo pakete au».

—«Eskerrik asko, mutil, bai iri eta bai ire amari be».

Eta... Agurl esanaz etxeruntz juan zan mutilla. Sartu zan Mirentxun aita eta Bizko mutillak ekarri eban zorrotxua eskaratzeko mai ganean itxiaz esan eutson bere alabatxoari:

BATIZ'TAR BINGEN

(In. SARIA)

idazle ezaguna dogu Batiz'ter Bigen, itz ieuz naiz itz neurtuz. 'Xaiokin' izen-ordea be erabilten izan dau. Nikolas bare erri-izena eiderentziz jai-rite de izen-orde au. Paname ko lurralde beroetan ezagutu neban orain iru urte. Arrera guztiz one egin eustan are joan nintze-nean, ango bare anaikide ziran karneidarrakaz betera. Igazko sariketan izan eban bare ikutua aita Batiz'ek, bailie aurten bare karta-azalaren barruan lenengo saria emoterakoan adiskide onen Irene aurkitzeak asko poztu gaito. Zoriona/

GAM'Z'ek.

—«Or daukan, ba, neska, eure zorijoneko mokotsa».

Zabaldu eban Mirentxuk zorrotxua eta mokots ain txatxar eta itxusia ikusi ebaneko, negarrari emon eutsan eta zarataka asi zan:

—«Au dala beste urtietako baño mokots aundi ta ederragoa? Ori esan eutsun, ama, Antonik?... Ez, ama, au ezin leike izan Antonik niretzat eginduta eukan mokotsa. Zuk ain andra on eta zuzena dala diñozun Bizko sorgin zaputz orrek aldrebeskeriren bat egin daust; baiña jakin biar dot eta jakingo dot nire mokotsa nun dagon».

Bitartean Bizko Josetxo an joian Bengola'ra Mendiolako neskatoarentzako zan mokotsa zamau baten ondo lotuta ebal. Eldu zan mutil ori Bengolara ta ango etxeoandre Benitaren eskuetan itxi eban bere amak Juantxurentzako mokotsa zala esanaz emondako zorroa edo paketea. Ikusi ta bertan konturatu zan Benita Bizko Joxepak semeagaz bialdutako mokotsa etzala Bengolara-ko, Mendiolarako baño. Bai, ba, meza aurretik Benita bera erriko ogitegian egon zanean, an ikusi zitun ainbat eta ainbeste mokots. Eta mokots guztien artean bat beste danak baiño aundi, biribil eta aderragoa zala konturatu zanean, ogijak saltzen egoanari itandu eutsan ea zeinrentzat edo norentzako zan Mokots ain aundi ederra.

—«Mendiolako Mirentxurentzat bere amabesoeta-koak agindua da mokots aundi ori», erantzun eutsan ogi saltzalleak.

Orregaitik bere begien aurrean orain mokots ori ikusiaz batera, Bizko Joxepak egindako okerra ainbat ariñen zuzentzeko asmo eta erabagia artu eban. Eta bere seme Juantxuri ezebe esan barik, zeinrentzako zan mokotsa ba ekian ezkerro, artu eban bere eskuetan eta Mendiolarako bidea artu eban. Urriñetik entzuten ziran Mirentxuren negar eta garrazijak.

Eldu zan, ba, Bengolako Benita Bizko Joxepak Juantxurentzat zala ta bialduriko mokots aundi ederra eskuetan eroiala eta deitu be egin barik eskaratzeraño sartuaz Mirentxuren eskuetan ipiñi eban esanaz:

—«Ez, ama, ondo dakit mokots txatxar au eztala Anionik niretzat bialdu dauana, igezkoa baño asko be txikiagoa ta zatarragoa dala zeuk be ondo ikusten dozu».

—«Ona emen, neska, ire negarrak eta garrazijak ixilduko ditun mokotsa. Etxakiñat norena edo zeinena izan dan errua, baño okerrak zelan zuzendu jakin ezkerro al-bait ariñen zeregin ori egin bear dala ta etorri non iretzako zala banenkialako. Neuk gaur goizian goizetik ogitegian egon nazanian mokots au ikusi jonat eta bai Mirentxu Mendiolakoarentzat zala jakin be. Baiña orain neuk be mesede bat eskatu bear jonat ementxe danon aurrean. Ez Bizko mutikoari, ez bere ama Joxepari, ez beste iñori mokotsokin jazo danari buruz ezertxo be aitatu be egin. Ekatzue mokots txiki ori ta neuk konponduko dot gure Juantxugaz, Bizko Joxepagaz eta kontu edo auzi onetan zer-ikusia izan daben beste guztiekaz, ixil-ixilik, ezer jazo ezpalitz lez dan-dana. Ez esan, ba, tutik be iñori, ezta Antoniri berari be».

—«Olantxe egingo dogu, Benita, ta eskerrik asko gure neskato au ixiltzeko eta pozik ixteko egin dozuzan alegiñakgaitik».

Eta beste barik alkarri *Agur* esanaz, Bengolako Benita bere etxerantza joan zan eta Mendiolakoak, bazkal ordua zanez, maian jarri ziran pozik danak, baiña geien geien Mirentxu. Eta olantxe amaitu zan Mendiolako Mirentxuren mokots edo Pazko-Eguneko opillaren ipuiña.

BATIZ'tar Bingen

NESKARRAIN

AUGUSTIN ZUBUKARAI

(2n.SARIA)

Nork ez deu ezagutzen Augustin ZUBIKARAI? Beti izen de ospetsu, erako EGUNA aldizkarian idazten ebenetik asita, gütxienez. Eta espe/dion Ondarruko Udel-Betzeren erabagi zuzena dela-te, ospetsuago.

Asko te ondo idatzi dau gure Augustin'ek aldizkarietan eta liburuetan. Orregaitik sari au beretzat izateak geu be poztu egin geitu. ZER aldizkariaren izenean, ZORIONA, Augustin!

GAMIZ'ek.

Ekaitz egunetan bakarrik urte-ten eban bere zulotik.

Itxas irakiñera urten, olatu artean jolastu, ango apar, bits eta ur laiñoetan busti ta izerditu, eta urak ur-andi ziran bitartean barri-ro sartu eta eskutaten zan bere zulo edo kobaetako baten.

Izaro'n fraileak bizi ziranean Ogoño'tik ara joaten zan, eta an, euren aurrean, olatu artean gan

Deabruaren alaba zala uste eben fraileak eta kanpaia jo, ziri ez jausteko.

Ule luze berdexka, oroldi illunen koloreko; arpegi eder zabala eta bular puztu ta mamintsu, biribil eta beteak eukazan. Gerritik bera, arrain andi baten egitura, bere arkodun buztan zabalagaz. *Neskarrain* deituten eutsen.

Gordeleku asko eukazan Ogoño'tik Bizkai mugara. Puntaleku, Kresaladi, Ibiarri, Ermitxo... Elan txobe ta Natxitu artean. Gero, andik Lekeitiorako ertzetan, Lapatza, Apikal, Ogella eta Otoio azpiak. Aurrerago Egiluz, Endaidi, Zagustan, Baurdo, Txanterreka, Atxaspi...

Ortik ez zan igaroten, Saturran'go Ezlilantxarri'ri bildur eutsalako. Napar gotzainak aitz punta a euren mende eukenean, konjuroak zabaltzen zituelako andik.

Ordurako Neskarrain'ek bizi luzea eroian itxasoetan.

Arrantzalien emazte eta amak gau illunetan ikaraz gogoratzen eben. Umeak bere bildurez esnatu ametsetan.

Lapak atxari lotuta legetxe la ei zitun gizonak bere ondoan, bere edertasunagaz zoratu-ta. Eta beretzat artu.

Ez zan ori egi ain betea. Baiña sinistua bai.

Gizonak be betozkoz entzuten eben bere izena.

Bein, andik ikusi ebela-ta, fraile bat, ziurtatu nairik, Ondarroa'ko atxaspi eta Irabaltza arteko aitzetara joan zan... eta geiago iñoz bere aztarrenik ez eban artu. Frailearen aitzia deitzen dautse geroztik a urreratu zan arri muturrari.

Itxasoa bera zoratuta lez jagiten zan, bere inguruan susmauten ebanean, kili-kili bizi baten egon ezinez. Eta gero ta beroago, sar ta irakindu. Eta ziratu ta itsutu. ta inguruan gertaten ziran txalopak aidean erabili, ta gizonak, tirabiratan, itxasora jaurti.

Aizeagaz batera igarten eben andrak Neskarrain urreratu zala ta gizonak ostuko eutsezala. Eta gau baltzean be Antigua'ko Ama joaten ziran, euren gizonen errukiz itxasora urteteko negar eskabidean.

Bein baino geiagotan billatu eben Antigua'ko Ama, oinak bustita, uletatik ura dariola, begiak malkoz bustuta, itxasoan ibili on-

doren, negarrez, berandu eldu zala-ta.

Eta andrak baltzez jazten ziran, bizi guztirako zapi eta oial illunez, euren gizonak Neskarrain'ek ostu eutsezalakoan.

Lekeitiarrak Otoio mendiari emoten eutsen errua, bere azpietan biziten lagaten eutsalako, aterpe ta atsedena eskiñiz.

Iñoiz, estu ta larri, bere aztikeriz erdi zoraturik, olatu andien artean bere burua bilin-bolonka ta arri-pendul lez tatarrez aitz ega agertu zan bat, Otoio mendira joan zan, dana laga-ta, eta Otoio'ri kañubetia sartuz, odolik ba ete eukanka zemaian jardun.

Iatarrak Tala'ko Amaren ermitara joaten ausartu barik, Beletxe ondolik itxasora urreratzeko bildurrez, Natxitu'ra joaten ziran, an kanpaia jo eta zela-ala «konsolau» nairik. Eta Arboliz'tik zear Elan txobe'ra joan, Ogoño azpiko kobaetan sartzen ikusten ete eben.

Baina Neskarrain andik agertu ordurakoxe, laiñoa sartzen zan itxasotik, gurma lodia, eta elan txobetarrak mendi gibeledko sokondoetan eukezan etxetan gorde-ten ziran.

Egualdi barea egoan baten, Mikolas Txangurru, gizon lerdanak, lanpernetan ebillala, lo ikusi eban Neskarrain, Ogoñopeko zulo baten, bularrak aidean mundil lez eukazala.

Arrokeriaren zirtada igarri eban beragan lenengo, izaki entzuetsetu ta zoragarri a bere menpe eukitean. Eta arpoia gertuten asi be bai, baiña beriala damutu. Neskarrain'ek igarri ta buztanagaz emon eutsan zapladeak konort barik laga eban. Eta beriala itxasoa jagi zan, batela ondoratu, ta Mikolas aitzarteko zulora sartu. Andik laster maitemiñetan igortzi, laztandu eta atsegindu be

bai biak, Mikolas'ek bendea eukita bere biotzaren errukia jakin erazo eutsanean.

Galdutzat emon eben erritarrak Mikolas. Ittotzat. Ibili be egin ziran txalopetatik aitz tarteak ikusi eta arakutzen. Alperrik.

Illeta egin eutsen erritarrak andik egunetara. Eta erri guztia eleizan egoala, unerik ixillenean, kantu zoragarri bat entzuten asi ziran, aizearen joaldi bigun baten:

*Eutsi, eutsi Mikolas Txangurru,
edan gogotsu titia,
nire esneak emongo dautsu
eundak urteko bizia.*

Urten eben eleizatik ze ikusiko ta zingira luze bat oartu eben kai

aldean. Eta kai sarrerako muturraren gainean Mikolas, ametsetan egin ba eban lez, irribarrezka.

Esanak esan zitun, danen aurrean, Neskarrain'en edertasun eta ontasunari buruz. Ez eutsen sinistu. Alaz eta bizitzako esnea artu ebala egia zan. Eun eta amar urte bizitera eldu zan. Au da, beste irurogei. Baina bere lenen oinaldiko seme-alabak, gizon egituraz sortuarren, orkatillatik berakoa arrain buztana lako bat euken, gizonok eukiten dogun beatzik barrik.

Ori ikusita, gerokoak sinistu ta fedez iruntsi eben kontakizuna eta itxasertzean zabaldu.

Geroztik inok ez daki Neskarrain nun geratu zan edo nun dabilen.

Batzuen esanetan, Ogoño'ren azpian dagozan aitz-arte sakonetan bizi da, zaartuta, antxiñako zoroaldi barik. Besteen ustetan, baleen lagun zan, areikin asetzen zitun bere maitegarriak eta gure itxasaldetik baleak eskutatu ziran, areikin joan zan Amestegietako ugartetara.

Ala dan edo ez, pentsatu lei ba koitzak nai daben lez. Baiña Neskarrain itxasoetan bizi zala sinistu nai ez dabenak, kalabaza andia dauka garunen tokian.

AUGUSTIN ZUBIKARAI

RAMON ZAPIRAIN LEKUONA

(3n. SARIA)

ROJELIO IJITOA

Gipuzkoarrak be ikertu gaitue gure sariketa onetan. Ona amen gure Zapirian'en ipuiña. Gipuzkoeraz idatzita dago, baiña anaitasunaren ezaguri lez, erri-euskera ederrez idatzitako ipuin au pozik argitaratzen dogu.

Ramon Zapirain gazteak GOIZ-ARGI aldizkarian egiten dau bere idazle-lana geien bat.

Zoriona, Ramon! Eta eskerrik asko gure lanera zeure ales ekarri dogulako.

Irrintzi bat entzun zan.

Bi mendien erdian, an, beko zulo artan, asto batzuek belarrari koska ta koska ari ziran. Arkaitz batzuen kerizpean, Lopez, Jimenez, Gonzalez, Florez, Galindez, Fernandez, Pelaez eta beste inungo «ez» guztiak prakak oiñetaraiño jetxita, berak bakarrik egin zezakeena egiten ari ziran.

Une ortantxe, juxtu, juxtu, mendi gaillurretik zertorren irrintzia entzun zan. Gorputzeko larritasunak aaztu ziran ijitoengan eta egitekoa egin gabe prakak erdi jantzirik tximistaren antzera astoen bizkar gainera igo ziran.

«Euskaldun alubita auek gorputzarentzako bearbearrezkoa dana egiteko denborarik ere etzigutek

ematen»-Esan zien Rogelio izeneko batek bere lagunari.

Irrintziaren oiartzuna gero eta urbillago, gero eta geiago eta gero eta indartsuago irixten zitzairen ijitoen belarrietara.

An zegoen an urduritasuna eta larritasuna. Asto gaixoak asto izaki eta zaldi baten aiñako abiada eskatzen zien beren bizkar gainean zijozatenak.

Mendi tontor gainean Zuaznabar eta bere lagunak burua zuzen eta begiak erne, ijitoen laisterkari begira zegozten. Izan ere, Zuaznabar eta bere lagunak egindako lanetaz jabetzen ziran ijitoak, bai barazkietaz eta baita ere azitzen zituzten zenbait abereetaz.

SARIKETA

Irrintzia ijitoentzat, demonioaren karraxia bezelatsu izaki. Bestalde, irrintzia etzan ixiltzen, euskaldunen eztarria etzan geratzen, alik eta ijitoak beren lurralde oietatik iges egin arte. Etzan metralleta bearrik. Guda karraxia bezela ulertzen zuten ijitoak Zuaznabar eta bere lagunak irrintzi ori.

A ipatutako Rogelio ori, bere gaiztakerietako lagunak baiño usartagoa zelako edo dana dela beintzat, astoari belarratik tira iso! bat esanaz eta zuzgaitz baten arrimoan gorde zan. Gaiñontzeko ijitoak beste nunbaiteko tomate billa joan ziran eta beste oillotegi bateko oillo-lapurketara.

Gauzak orrela Rogelio'k etzeukan presarik. Eguna joan arte, Zuaznabar eta bere lagunak ikusten etzuten zaugaitz atze ortan egongo zan. Izan ere illupean lapurrak askoz ere obekiago mogitzen dira. Gaua, illunpea, bere lantegirako erramienta bat bezelatsu gerta oi da.

Zuaznabar ordea konturatu zan amabi ijito zeudela mendiko zulo artan eta, igeska, urrutian izkutatzen, amaika bakarrik ikusi zituela, bat falta beraz; nunbait gordeta geratuko zela ziurtasun osoa zeukan.

Una batean irrintzi-karraxiak baretu ziran. Mendi azpi artan ixiltasuna jabetu zan. Ibai tiki baten ingurutik igel baten kantua bakarrik entzuten zan. Nolanai ere onen, kroak, kroak, kroak, kroak, urduri jarri arazten zion Rogelio'ri.

Bitartean mendi gaillurrean Zuaznabar bere la zegoen. Berealaxe, inguruko mendi tontor gaiñera igo eta andik banan, banan, irrintzi eta oiuka asteko erabakia artu zuten.

Yon. Gorka, Mikel, Koldo, Joxe Mari, Yosu, Eneko; Gartxot, Bernat, Iñaki, Kepa eta Zuaznabar bera, bakoitza bere mendi tontorrera abiatu zan. Or barru denok batera, bakoitza bere lekutik, ez-tarriari gogor, iñoiz ez bezela, eragin bear zion.

Ijitoa, bitartean, eundoko patxaraz, polsillotik karta batzuk atera eta «solitario» bat egiten asten da. Astoa, burua makurturik, belarrari musuka dabil, baiñan belarganako maitasuna zenbateraiñokoa dan ikus dezazuten, jan eta guzti egiten du. Igela ere ez da ixiltzen; salto eta kanta, gaur beintzat, egun ona dadukala dirudi.

Bi ourdu barru edo, eguneko argia izkutatuko da. Rogelio'ri ainbeste denbora egoteak gosea da. Une ontantxe oillo bat du amets. Orrekin konforme litzake.

Zuaznabar igo da mendi tontor aundienaraiño. Andik beste tontor guztiak menderatzen ditu. Yon, gertu dago, Mikel, Eneko, Berñat... denok igo dira beren lekura.

Zuaznabar'ek eskuan daraman adarra abora inguratu du, aizea artu eta or doa adarretik, irrintziak asteko deia.

Une ortantxe asi da pesta. Astoak karraxi oiek ezagunak ditu eta berealaxe utzi du belar maitagarria. Burua tente jarri eta ba-daki laisterka bizian atera bear duela zaldien aiñako abiadez.

Arriturik dago astoa nolatan ez dagoen dagonekoz Rogelio bere bizkar gaiñean. Astoak ordea ez dute pentsatzeko afiziorik izaten eta izatza astin biurtu nai du lenbaitleen. Une ortantxe izatza tente jarri duanean, aprobeixatu nai zuen Rogelio'k astoaren bizkar gaiñera igotzeko. Aukera ori ordea ez dio eman astoak, atzeko ezkerreko ankakin Rogelio gajoaren kokotza jo du. Bi ortz gutxiagokin eta izarrak ikusten lurrean zerraldo geratu zann ijito ausarta.

Or lurrean etzanda dagoelarik, oillar bat arro, arro, inguratzen zaió. Orrela bere parera inguratu danean oillarra «striptis» egiten asten da eta bere gaiñean daramazkin lumak erazten asten da. Rogelio'ren mingaiña, berebil baten parabrisa bezelatsu dabil ara eta onera. Izardi tanto bat edo beste ere erortzen zaió. Azkenean oillarra ezertxo ere gabe geratu da, eta potxolo, potxolo Rogelio'ri kiñu egiten dio.

Rogelio'k ez daki zer egin, gosea eta egarria dana batean etorri zaió. Azkenean gosea asetzea erabaki du eta oillarraren ustegabeaz baliatuz, atzaparra botatzen dio.

Ara nun ordea, oillarraren lepuarekin topatu bearrean, Zuaznabar'en ankarekin topatzen dan. Orduantxe bukatu astoak emandako anestesia. Esnatzeko era gogorra Rogelio'rentzat.

Txuri, txuri geratu da Rogelio gizajoa, ez dauka irtenbiderik. Tomate, gabe, oillaskorik gabe eta... astorik gabe geratu da.

Zuaznabar eta bere lagunak etxera eramán du. Kokotzeko kolpea nolabait sendatu eta, benetako oillaskoa jan ondoren eta naiko sagardoa edan ondoren, Zuaznabar'en lurraldeetatik betirako alde egiteko erabakia artzen du. Muga'ra irixten danean, irrintzi bat egiten asten da ta orduantxe irugarren ortza erortzen zaió.

Ramon ZAPIRAIN LEKUONA

EGON ETA IZAN

GIDOR BILBAO

(4n.SARIA)

Gidor BILBAO mutil gazte Bermeo'tarra dogu. Ikaslea. Eta oraintsu asi da jo ta ke idazten. Euba'ko LAUAXETA sariketan be irabazi dau serie.

Gazte onengan geure itxaropena fern! geinke. Gogotsu ta adoretzu datorrela dirudi.

Zoriona Gidor! Alegindu zure idazkortza geroago ta zorrotzago ta obeto erabilten. Euskalerrriak bere esker one agertuko dautzu.

—Domeka, 15.

Goizetik itzartu nau otzak gaur goizean. Zugaztia utsik egoan. Ez zan euririk, baiña laiñoak, ekaitzaren ezaugarri ziran. Otza aaztuteko, ibiltea izango zala gauzarik egokiena uste neban, baiña... bakarrik nengoan. Aitagaz eztabaida areek, nire anaiek, zarataka, zarataka, zarata geiago... Pentsatzen nengoan.

Onea, bakarrik egotea izango zala uste neban. Aldarri egingo eustan iñor barik, zirikatuko ninduan iñor barik, gura nebana egitea galerazoko eustan edo gitxien atsegin jatazanak egitera beartuko ninduan iñor barik. Bakarrik egon, neure buruaren jabe izan, eta egin; gura nebana egin.

Orain, emen nago; dago. Nire burua dago. Billa nabil... eta ez dot aurkitzen. Bakarrik nago. Nire gurasoak, anaiak... Au; bakarrik.

Nire askatasunaren bigarren eguna da, eta... Askatasunarena? Zein askatasuna? Non dago nire askatasuna? Nire barkartadearena. Askatasunaren billa nabil, eta ez dago. Ala ba-dago? Baietz uste dot; askatasuna, badagoala. Baiña ez nire. Beiñolan, etxetik urten nintzanean, baietz uste neban. Nire lagunek esan eusten: «Gu, aske gara. Zu, gura ba-dozu, izan zaitekez».

Nire lagunak. Non dagoz orain? Eurak, eta euren askatasuna, ez dagoz. Ez, bakarrik nago; aske naz, baiña askatasuna, barkartade da.

Pentsatzen nengoan, eta alako baten, neuk dei egin baneutson lez, eta euria askatasun balitz lez, urasetuta aurkitu nintzan. Bapatean, kale-ertzzerantza joan nintzan. Ori, leenago egin bear nebana zan, baiña ez nengoan itzartuta; burutasun areek...

Kale-ertza, zementozkoa, garbi egoan. Garbitasuna, norbaitena... bota egiten ninduela uste neban, joan egin bear nintzala.

Ba-niñoian, niri deika ebillen abots bat entzun nebanean. Abost gozoa, doiñuduna zan. Norbaiteri deika, eta «neuri»; ezinezkoa zan. «Ni ez nau iñork ezagutzen, ez dautsat iñori ardura». Nire ingurura begiratu neban, eta neu bakarrik nengoan. Neu, eta neska bat, gaztea ni lez.

Bapatean ikusi nebanean, iñoiz ikusi neban gauzarik ederrena iruditu jatan. Berak, bertan jarraitu eban, geldik. Eta ni, bere aurrean. Ez nengoan bakarrik. Norbait, nitzaz arduratu egin zan. Neutzaz. «Nago, naz, niretzat eta norbait geiagorentzat. Naz». Pentsatu egiten neban; ori zan egin neikean gauza bakarra.

Leenago, bakarrik egon nintzan. Baiña onezkeru, izaro a, neu bakarra, zentzun bakoa zala oartu neban. Berba egin neikean, esan, baiña ez neukan indarririk. Abots aren, begirada aren gozotasuna... neuretzat.

Nik, zeozer esan gura neban, bai, baiña bera, aurreratu egin jaten. Eleiza bateri buruz, an batzen ziran gazte talde bateri buruz esan eban zeozer, ni ere joan neintekeala... Ni? Pentsatu neban. Ez. Denpora asko zan ez nebala orrelako tokirik zapaltzen. Ez. Ezinezkoa zan.

Berak, munduko gauzarik garrantzitsuena neu banintz lez, biaramonean barriz etorteko esan eustan. Ainbat gauza esan eban, baiña orain, bere itzak, doiñu utsa iran niretzat, txistorik ederrenaren...

—Astelena, 16.

Atzoko alkartzte lilluragarri aren ostean, gaur ere zeozeren itxaropena neukan. Zeren itxaropena? Begirada bat,

irribarre bat? Ezebez. Atzokoa ez zan izan benetan. Izan zala sinistu gura neban, baiña a, irudimen utsa izan zan. Nor arduratuko zan nitzaz? Ez, ni, ori dana baiño garrantzi gitxiagoduna naz.

Zer egin neban nik ez izateko? Egon bai, baiña ez izateko? Ze ni, egon bangoan, baiña ez nintzan. Noizik bein, atzokoa benetan izan zala uste izaten neban. Eta barriz bertara joateko uneari itxaron neutson, egiari aurpegi emoteko uneari; amesetan egin neban ala ez jakiteari. Ikaratsu somatu nintzan. Ikaraz beteta nengoan.

Eguna ba-joian, eta ni, bakarrik. Ume nintzala parrokkiko abestaldean abestuten neban egunak gogoratu jatazan. Nire abotsa, danan artean ederrena zan, edo ori uste izaten neban nik beintzat. Ume a, eta ume au, ume au edo gizon au, bat ziran ala ez itauntzen neutsan neure buruari; ia mundu bardiñean bizi ziran ala ez. Izan ere, ba ete ziran izan? ...Eta ezetz uste neban.

Gabaz, neuk jakin barik, atzoko toki berberan aurkitu nintzan, kale-ertz aretan, kale-ertz garbi... Alde egitea erabaki neban. Ba-nekian bezperako ametsa, gaur ez zala egi biurtuko.

Eta atzo lez, abotsa entzun neban. Abots berbera. Alde egiten aalegindu nintzan, ez neban neure amesetan gizen-du gura... Eta a, egi utsa zan. Baten, amets egin neikean, birritan beardada; baiña a, ez zan ametsa... eta nik ez neban sinisten. Atzera begiratu neban, eta an egoan bera, bezperan baiño ederrago.

Barriz ere, parrokkiko abestaldea *gogoratu* jatan. Eta ba-zan... Izan zan eta naz. Oraintxe berton, neu nintzan beste gazte batzun artean. Neuri begira egozan. Neu... nintzan.

Martitzena, 17...

Domeka, 1.

Gizon barri bat naz. Naz; barriz izatera eldu naz. Askatasuna, ba-dagoala uler-tu dot. Egin, egin bear dogula. Askatasuna, ez dala bakartade. Askatasuna, mendian, lantegian, itsasoan, sukaldean, gaixo-etxean dagoala. Ainbat eta ainbat tokitan...

Askatasuna, langilleena, arratanzaleena, nekazariena dala ulertu dot. Ezin dogula lortu gaixo-etzeak erreta, lantegia, etxea, gure etxea lagata... «iñon bere ez» billatzeko. Ba-dala, dagoala, baiña ez datorrela. Askatasuna billatu, lortu egin bear dala dakit orain. Askatasunera, gitxika-gitxika eltzen garala.

GIDOR BILBAO

ANTZERKIA

TXARRIA ETA ASTOA

Ikastoletako umeentzat antzerkitxoa.
Antzezleriak: edeslaria, txarria, astoa eta arakina.

Edeslariak:

*Asto zar-zar bat bizi zan errotan,
baita txarri lodi bat astoaren kortan,
errotan bertan.
Astoak inbidia eutsen txarriari,
ikusten ebalako ondo zala bizi.*

Txarriak:

*Au dok bizitza ederra!
tripa daukat lodi,
urun fax askan beti,
eta jatekoa ugari.*

*Nik jan ta lo, besterik ez...
lan guztiak astoari...
Ni baiño obeto
iñor ez dok bizi.*

Astoak:

*Nik, oster, askan
lastoa baiño ez.
Gau ta egun lanean, kargapean,
makal eta gosea.*

*Eta txarri onek ondo jan,
eta lanik ezebez.
Ai, ni txarri jaió ba'nintz
asto nazen ordez.*

(Txarria eta astoa, biak, etzun egiten dira lo egiteko).

Edeslariak:

*Lo dagoz biak, astoa eta txarria... Baiña goizean,
dan! dan! dan! entzuten da kortako atean...*

*Itxartu dira biak (lotatik itxartuten dira)
eta... zer ikusten?
Arakiña atean aizto andi bat zorrozten...*

(Arakiña sartzen da aiztotzar bat zorroztu ta zorroztu).

Arakiñak:

*A Itza zaitez, txarri lodi, gizona,
Gaur da-ta zure azken eguna.*

Edeslariak:

*Txarria irrintzika asten da negarrez,
kortako bazterretik urten gura ez.*

Txarriak: (belauniko)

*A rakin, arren, erruki nitzaz...
Egia da, alperra izan naz,
baiña parkatu!
Aizto ori ez zorroztu!!!
Emen nago ikaraz.*

Arakiñak:

*Txarri, alper, lodi, gizen,
Bazter orretatik, urten!!!
A lperkerian zara gizendu,
orain negar egitea
da berandu.*

Edeslariak:

*A rakiñak sartzen dautso samatik
aizto andi zorrotza,
gure kurrinkari emonaz
eriotza latza.*

Astoak:

*Jainkoari eskerrak, bizi nazalako.
Betoz nire gaiñera amar milla makal.
ez dot gura txarri onen antzera il!!!*



GOIKOETXEA'tar

Iñaki.

Aurreko zenbakian agertu genduan Zornotza'n izan dan gaztetxuen Olerki-Sari-ketearen barria. Argazkian Zornotza'ko Olerki-Batza.

LORIK EZIÑA

Biotz maiteminduen barne-al-dakuntz naiz goraberak dirala-ta, lorik-eziñak eurei dakartsezan arazoak gaintitu-bearra dabe.

Zazpi ordu baiño gitxiagoko loak, bestalde zortzitik gorakoak, eriotzea aurreratu egiten dausku.

Nundik ona baiezko au? Thomas Roth'ek erantzungo dausku bereala. Aste batzuk dirala, Madrillen. Michigan'go Detroit eskualdeko Henry Fard deritxon gaisotegian Zezendaria dogun Thomas Roth irakasleak esan dauskunez, eundik ogei ta amar notiñek (% 30) ez dabe lo ondo egiten.

Eurengandik eundik amarrei eguneroko lo-eziñak gaintzen dautse eta esan daikenez urterik urteko lorik ezaren ekiñaldi aspergarrian bizi dira.

Eta ez ei da ori dana. Ei dagoz egunez loak arturikoak be. Oneik be loa azpiratzeko, menperatzeko, alegiñik bizienak egiten dabez.

Lorik eziñaren ziorik garrantzitsuenak Roth osagilleak dirauskunez, gure barneari naiz gogoari ezarri daikozenak dira. Esate baterako maiteminduengandik, euren zuzengabeko bideetatik datorkezanak, baita be adorerik ezaren ondorengoak diranak be, stres edo bizitzearen abiadatik datozenak eta olakoak be bai.

Soiñari buruz, berak bere aidentik esku edo parte artu leikenez, esaterako birikiei buruzkoak diranak, arnas-estutasunak damoskuezenak, giarrekaz kontu artzeakoak eta beste askotarikoak.

OSABIDEAK

Lenengo osagilleari esan bear jakon zeregiña ei da.

BAKEAREN ALDEKO EKINALDIA

Guztiok gura dogu bakea, baiña ez da erreza izaten lortzeko zer egin jakitea.

Bilbo n, Katoliku-Ekintzako Andrak otoitz-ekiña/diak eratu dabez.

Orrilaren 19'an, arratsaldeko 8'retan, Begiña'n izan zan bigarren ekiña/dia, Karmelo Etxenagusia Abade zala Eukaristia egiñaz. Munduko Emakume Kristiñauen erakundearen barruan, aurten Irlanda'koak izan dira eratzaille.

Bigarren ekiñaldia izan da au. Lenengoa, urtarrillaren 30'ean izan zan, Begoñan eta Lareta'ar Koldo Mirena Gotzain fauna meza-emoi//e zala ta Gotzain Laguntzaillea ta beste 19 abade Mai Santuan zirala.

Emakume kristiñau oneik mundu anaikorragoa ta alkartuagoa nai leukee. Bakea Jaunaren emoitza da, baiña eskuratzeko alegiña egin bear dogu.

EKINTZA KATOLIKU'ko emakumeak.

Gogoari dagokiozan osagaiak ez ei dira ezelan be egokienak gorputzaren gaitz bereziak menperatzeko.

Alkoolkeria da Roth'en ustez ondo lo egiteko daukagun areririk txarrena. Batek baiño geiagok diño alkoolak lagundu egiten dautsela loak artzeko, baiña ori ez da egia. Gitxi edaten danean uste leiteke lagundu egiten dauskula lo egiteko. Baiña orrelan jarraitzekotan, laster konturatuko gara ez dala bide egokia. Edari zaleak gabean bein baiño sarriago itxartuko dira. Eta ori ez da gura geunkena. Osasunerako onena be ez.

Droga-zaletzaz Roth jaunak di-Ilona be ez dator esaten dabenaz bat: «Gitxi artzea onuragarria da, ainbat ohea izango da lo-eragi-lleak neurri barik artzea».

Aste baten barruan onuragarriak izan daitekez, lo-piztugarri orreik, baiña andik aurrera ezelan be ez. Aurkako ondorenak sortu-azo daikeez.

Udaldeko edo bazkal-ostekoak ez dau bizitzeran egoerea aldatzen eta lo-kukutxu au oiturazkoa izaten dan tokietan jarraigari egokitsu lez artu leitekela dirudi, osasuntsua dalako.

Amaitzeko auxe esan geinke: % 58 ilten dirala loak artuta dagozela. Larregikeria dala? Konturatu bizitzearen zati eder bat, irutitik bat, lotarako izaten dala. Alan begiratu, ez ei da gaiegizkoa, benetako «zergaitik» oldozgarria baiño.

Artu dagiguzan ba, ondo biziteko lez, ondo loak-artzeko neurri egokiak; gure bizitzea ta eriotzea gure izatearen ondoren pozgarri ta itxaropentsuenak izan daitezcan.

ARREGI'tar Josu'k

EGIA ZABALDU

Goiria


Itzaldi mamintsua egin eutsen Aita Santuak Prantziko aste-argitalpenen zuzendariai.

Zuen lana —Moan Aita Santuak— bearbearreko egikizuna da. Gaur munduko jazoera guztiak zabaltzen dira beingo baten alde guztietara. Katolikuak ezin egon leitekenez geldi. Egikizun au garrantzitsua da, itxi-eziña katolikoentzat. Erriari argi ta garbi ta egiz azaldu munduko jazoerak. Erriak zelan epaitu gauzak ondo, illunkiro edo guzurraz esaten ba jakoz?

Onetan dago —ene semeak— zuen arloa, zuen egikizuna. Gizarte jazoera danak egiaz edestu ta esan. Esku-zabalekoak, biotz-onoak izan beti argitalpenakin. Oneik be elburu bardiña dabe: zeruko erreñua zabaldu.

Itz ederrak Aita Santuarenak. Katoliku danak argi ta garbi jokatu bear dau beti egiaren alde. Txaloak lortutearren kontzientzia egundo ez dau saldu bear. Ez da gogorakarri bearrik. Zenbat guzur, zenbat etzipen, zenbat irain egunerokoetan eta aldizkarietan eta irratian eta ikusirratian.

Aita Santuaren itzak gogan izan-da zintzoro joka beti egi, zuzentasun eta eskubideen alde.




Gorri

EZKER ESKUMARA: 1. Desterrado (el).-2. Hilo.-3. Mesa. Fuente.-4. Veladas.-5. Alcalde. los, las, aquel.-6. Aldea, caserío.-7. Exclamacion de sorpresa.-8. Dos. Nosotros. Condición (modo de ser).-9. Sufijo privacion. Tiene.-10. Atrasar, aplazar.-11. Nueve. Ciudad.-12. Palabra, promesa.-13. Torcido.-14. Gusano, macho. Yo.-15. Obra literaria. Pena, disgusto.

GOITIK BERA: 1. Llegada. Medianoche.-2. Pues.-3. Pera. Sentido, significado.-4. Estilo, forma.-5. Sed. Poder, dominio.-6. Yo mismo. Sacar, sustraer.-7. Tu mismo, tu. Reloj.-8. Ea, a ver si. Dedo, rastro.-9. Coger, recibir. Movimiento.-10. Iniciales de Capital. Ciudad. Accion.-11. Oro, cerca. Borracho.-12. Demasiado.-13. Col. Visitar. Verano estio.-14. Agua, proximo.-15. Pulmon. Ente, ser.

13.^a ERANTZUNA



Goñi

EUSKERAZALEAK

NENBILLAN ETA BA-NABIL

Bilbo'ko Udaletxetik bialdu euskuezan orriak, izen eta etxean doguzan zerak jakin-azo dagitseguezan, ez dakit egin ebazanak berak nai eban lez egiñak ziran ala besteren baten aginduetatik egiñak. Eta ba-neukan ori jakiteko gogoia, barri orren billa nenbilan eta nabil orain be.

* * *

Batek esan eustanez, goardizibilla; beste batek osteria, Bermeo'n, Ondarru'n, Motriku'n edo or nunbaiten izan dan karabiñeru zarren bat izango dala, lanaz kitututa, zar-sarituta dagoanen bat.

* * *

Bata naiz bestea izan, berarentzat izan diran lan eta nekeak ondo eroanik, euskera be polito ikasirik ara non dogun Udaletxean, nasai esarrita euskerea loratuten.

Arian-arian jarraituz, eta orain-artekora itzulirik euskerearentzako laukiak bete dabezenak zenbat izan ete dira? Ni neu ez, ni ez naz izan, euskera jatorrez egindako itzik ezin aurkitu izan dot eta.

* * *

Itsasaldeko ur-txoriak dagozen eginbearretan bakean lagarik, goazen orain euskal-arrotz itzezko mordoillokerira: Estatistika Instituto Nazionala, probintzia, agentea, pertsonalak, sekretoia; erreferentzia, posta, edifizioa, familia, inskribitutako organismo edo enpresak, komunik, korridore, galeria, altak eta bajak; kategoria profesionala, bulegoa, tuberia, finkatuskooa...

* * *

Batua, batua eta batu-zaleak! Izen bakoitzak, euskeratu ezkeru, dagokion itza dau.

LANDAJUELA'tar A'k.

GOIZ-ARGI

Erribideko aldizkaria

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

Erderaz

BARRIAK ETA ARAZOAK

SASKI-NASKI

ERRIBIDEKO ALDIZKARIA

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

munduko goraberak, jazokizunak, barregaiak...


VIZAR

Colón de Larreategui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Coupié eu nostrós

Zenue nstéa zuzan



CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA